



**IKASLEEN  
IRTEERA PROFILA**





# EUSKAL ESZENATOKIA



TXAPELA BURUAN ETA  
IBILI MUNDUAN

KOMUNIKATZEN IKASI



EUSKALTZALE AKTIBOA - EUSKARA - ELEANITZA - EUSKAL KULTURAN  
ERAGILE AKTIBOA - EUSKAL HERRIAREKIN KONPROMETITUA -  
ZUZENTASUNA - ALFABETATUA

## EUSKALDUN KONPROMETITUA ETA ELEANITZA

Euskara eta euskal kulturarekiko konprometitua dena, ikastolan eta gizarte mugimenduetan konpromisoa auzolanean parte hartuz, aniztasuna aintzat hartuz eta beste hizkuntzak ezagutzuz eta errespetatuz, munduko euskal herritar arduratsu izateko.

## MUNDUKO EUSKAL HERRITAR ALFABETATUA

Ahoz zein idatziz egoerak eskatzen dion hizkuntza egoki eta eraginkortasunez erabiltzeko, euskaraz eta gaztelaniaz adierazpen bikainaz eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean jarioratasunez, aurrez aurre nahiz eremu digitalak erabiliz bere iritziak eta azalpenak komunikatzeko.



# ESZENATOKI PERTSONALA



AUTO-EZAGUTZA - MALGUTASUNA ETA MOLDAGARRITASUNA -  
BAIKORTASUN ERREALISTA - AUTO-MOTIBAZIOA - ERRESILIENTZIA -  
ENERGIA ETA AUTONOMIA - AUTOKONTZEPTUA - AUTOESTIMUA ETA  
EMOZIOEN KUDEAKETA - OSASUNTSUA

## NORBERA IZATEN IKASI

### **BERE BURUA EZAGUTZEN ETA ESTIMATZEN DUENA**

Norberaren burua baloratzea eta onartzea auto-ezagutzatik abiatuta, gauza positiboak zein negatiboak kontuan izanik eta bere balorazio positibo batera iritsiz, zoriontsu izateko, heldutasuna modu sano batean garatzeko, errekonozimendu pertsonala eta soziala izateko.

### **ZAILTASUNEI AURRE EGITEN DAKIENA**


Arazoen aurrean, etsipenean erori gabe, aurre egiten dakiena, egoera bakoitzak dituen baldintzetara moldatuz eta malgutasunez jokatzuz errealitateari aurre egiteko, bere bizitzaren jabe izateko, besteei laguntzeko...

### **OSASUN OREKA AINTZATESTEN DAKIENA ETA DARAMANA**

Norberaren gorputz, buru eta emozioen oreka zaintzen duena, bizi-ohitura osasungarriak planifikatuz eta praktikatuz, zoriontsuagoa izateko eta besteengan positiboki eragiteko.

### **AUTONOMOA**

Edozein egoeraren aurrean bere baliabideak arduraz, jakin-minez, eta erantzukizunez erabiltzea, segurtasuna izateko eta maila pertsonal eta sozialean zoriontsu bizi izateko.



KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA POSITIBOA - ENPATIA - ENTZUTE  
AKTIBOA ETA ELKARRIZKETARAKO AHALMENA - HIRITARTASUN  
DIGITALA ETA KONTZIENTZIA SOZIO-KULTURALA - ASERTIBOTASUNA -  
FEMINISTA - EKOLOGISTA

## ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

### **EKOLOGISTA**

Gizakiak ingurumenean eta ingurumenak gizakiengan duen eraginaz kontziente dena, ingurumena zaintzeko jokabide proaktiboa erakutsiz, naturara hurbilduz eta ohitura aldaketa sustatuz, ondorengoei planeta hobea bat uzteko.

### **BERDINTASUN ZAINZAILEA**

Generoen arteko berdintasuna zaindu eta sustatuko duena, giza eskubideak oinarritzat hartuz, gehiegikeriak baztertuz eta salatuz, eredu heteropatriarkalari aurre egiteko.

### **KOMUNIKATZAILE ASERTIBOA**

Harremanetan, besteak erasotu gabe edota besteekiko menpekotasuna erakutsi gabe jokatzeko duena eta bere ideiak defendatzeko dakiena, diskurtso oldarkorak edota utzikeria edo koldarkeriatzat har daitezkeen jokabideak saihestuz, pertsona heldu bilakatzeko.

### **ENPATIKOA**

Bestearen lekuan jartzeko, sentimenduak eta arazoak ulertzeko eta beraien egoera emozionalei erantzuteko gaitasuna da, besteekiko jarrera ulerkerria erakutsiz, egoera eta emozioak ulertuz, besteekin hartu-eman hobeak izateko, loturak sendotzeko, harremanak indartzeko eta jendartean hobeto sentitzeko.

### **HIRITARTASUN KOMUNITARIOA**

Hiritar justu eta demokratikoa, parte hartzaile eta solidarioa, giza hobekuntzarekin konpromisoa duen hiritarra, komunitateko dinamiketan parte hartuz, komunitateko kide arduratsu sentitzeko, hiritar aktibo izateko eta ahaldundua izateko.

### **HIRITARTASUN DIGITALA**

Mundu digitalean informazioa kudeatzen dakiena, komunikatzeko gai dena, edukiak sortzen eta partekatzen dituena, herrigintzan parte hartuz, segurtasun neurriak zainduz eta planteatzen zaizkion arazoei aurre eginez, teknologia digitala nagusitzen ari den mundu digitalean aske izateko eta gizarteak dituen erronketan elkarlanean aritzeko.

### **ERALDATZAILE SOZIALA**

Gizartean ematen diren injustizia eta, oro har, arazoak identifikatu eta borrokatu, iniziatiba hartuz, konpromisoa erakutsiz, alternatibak eskainiz... mundu hobea bat eraikitzeko.



KOOPERAZIOA - SORMENA - LIDERGOA ETA TALDE-LANA -  
TEKNOLOGIA SORTZEA ETA APLIKATZEA - PROBLEMEN EBAZPENA -  
EKIMENA ETA EKINTZAILTZA - ERABAKIAK HARTZEA

EGITEN ETA  
EKITEN IKASI

## LIDER KOOPERATZAILEA

Helburu bera duten pertsonen artean lankidetzan aritzen dena, norberaren ardurak beteaz eta beste kideekiko enpatikoa izanez, elkarrekin ezagutza berriak eraikitzeko, arazoak ebazteko, proiektuak gauzatzeko...

## EKINTZAILE (SOZIALA ETA ZUHURRA)

Ekintzak planifikatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dituen inizatiba eta erabakiak hartzeko gai izanik, jakin-mina eta sormena erabiliz gizartean eragiteko, bizitzan zehar etengabe ikasteko eta erronka pertsonalei zein kolektiboari aurre egiteko.

## PROBLEMEN EBATZAILE

Errealitatean planteatzen zaizkion arazoei aurre egiten dakiena, jatorria identifikatuz, irtenbide posibleak aztertuz eta ezinezkoak alderatuz, erabakiak era arduratsuan hartzeko.

## SORTZAILEA

Idea berriak eta berritzaileak sortzen dituen, bere buruarengan konfiantza erakutsiz, ilusioa, ekimena, irudimena eta taldean aritzeko jarrera mantenduz, pentsatzeko, sortzeko eta gauzak egiteko ahalmena agerian utziz, arriskuak hartuz, oztopoak eta porrotak gainditzeko jarrera baikorra azalduz, aztertu gabeko bideak urratzeko prestutasunaz, erronka pertsonalei zein kolektiboari aurre egiteko.

## TEKNOLOGIAREN JABE

Eskura ditugun teknologiak ezagutu eta erabiltzen dakiena, autoikaskuntzarako ahalmena erakutsiz, besteengandik ikasteko malgutasuna azalduz, bere ideiak aurrera eramateko gogoia mantenduz, teknologiarik egokiena hautatuz, ekoizpen propioak egin ahal izateko edota besteen ekoizpenei etekina atera ahal izateko.





INFORMAZIOAREN KUDEAKETA - PENTSAMENDU KRITIKOA -  
PENTSAMENDU ANALITIKOA ETA AURRE HARTZEKO AHALMENA -  
JAKIN-MINA ETA IRUDIMENA - EKINTZAILEA

## PENTSATZEN ETA IKASTEN IKASI

### **KRITIKOKI JARDUTEN DENA**

Jasotako informazio hutsarekin geratzen ez dena, bere buruari galderak eginez, informazio iturri desberdinak kontrastatuz, konparatuz, iturriaren fidagarritasunaz hausnartuz eta norbere iritzia eraikiz besteak mendean har ez dezaten, errespeta dezaten eta berak ere besteak errespeta ditzan, bere iritzi propioa izateko, bere izaera eraikitzeko, bizitzan ziurtasunez jokatzeko, pertsona jantzia (jakituna) izateko...

